



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko irailaren 11n

66 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Behi-ustiatzietan kalitatezko esnea ekoizteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko zerbitzu periferikoak Gobernuko Ordezkaritzan integratzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Sociedad Estatal de Aguas de la Cuenca del Ebro, SA izenekoak sortzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Imarkoingo Garraioaren Hiriko hustubidearen egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- “Endekaturiko eremuak leheneratzea eta ingurugiro eragina zuzentzea” izeneko kontusailaren kontabilitate-egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Esako urtegia handitzea onesteko prozedurari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialean aurkezturiko eskabideak beste zentro batzuetara desbideratuko ote diren itauntzen duen buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

- 1998ko maiatzean egindako bilerak (11. or.).
- 1998ko maiatzean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (14. or.).

F saila:
GALDERAK

Behi-ustiategietan kalitatezko esnea ekoizteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak behi-ustiategietan kalitatezko esnea ekoizteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 28ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak galdera egin du behi-ustiategietan kalitatezko esnea ekoizteari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna, atxikiriko eranskinean doana.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 9an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

ERANSKINA

1.- Esne-behien ustiategien gaur eguneko egoera kalitate bakteriologikoari dagokionez.

| ZENBATURIKO BAKTERIAK | LAKTOLOGIKOA, EKOIZPEN KONTROLATUA | | | | | * EKOIZPENAREN GAINONTZEKOA | | | | |
|---------------------------------|------------------------------------|------|-------------------------------|-------------|------|-----------------------------|------|-------------------------------|------------|------|
| | Ustiategi Kop. | % | Behi/ustiategi, batezbestekoa | Ekoizpena | % | Ustiategi Kop. | % | Behi/ustiategi, batezbestekoa | Ekoizpena | % |
| < 100.000 | 533 | 61,1 | 30 | 103.355.094 | 68,7 | 109 | 12,5 | 51 | 35.861.987 | 23,8 |
| 100.000 eta milioi baten artean | 198 | 22,2 | 10 | 10.925.922 | 7,2 | | | | | |
| > Milioi bat | 37 | 4,2 | 3 | 410.564 | 0,3 | | | | | |
| Guztira | 763 | 87,5 | 24 | 114.691.580 | 76,2 | 109 | 12,5 | 51 | 35.861.987 | 23,8 |

Ustiategiak, guztira = 872

Guztizko esne-kuota = 150.553.567 Kg

* Ekoizpen hau ekoizle ertain eta handien eskuetan dago, gehienak I.T.G. Ganadero-ren programaren barruan.

1.- Esne-behien ustiategien gaur eguneko egoera zelula-kalitateari dagokionez.

| ZENBATURIKO ZELULAK | LAKTOLOGIKOA, EKOIZPEN KONTROLATUA | | | | | * EKOIZPENAREN GAINONTZEKOA | | | | |
|---------------------------------|------------------------------------|------|-------------------------------|-------------|------|-----------------------------|------|-------------------------------|------------|------|
| | Ustiategi Kop. | % | Behi/ustiategi, batezbestekoa | Ekoizpena | % | Ustiategi Kop. | % | Behi/ustiategi, batezbestekoa | Ekoizpena | % |
| < 400.000 | 533 | 61,1 | 30 | 103.355.094 | 68,7 | 109 | 12,5 | 51 | 35.861.987 | 23,8 |
| 400.000 eta milioi baten artean | 198 | 22,2 | 10 | 10.925.922 | 7,2 | | | | | |
| > Milioi bat | 37 | 4,2 | 3 | 410.564 | 0,3 | | | | | |
| Guztira | 763 | 87,5 | 24 | 114.691.580 | 76,2 | 109 | 12,5 | 51 | 35.861.987 | 23,8 |

Ustiategiak, guztira = 872

Gutzizko kuota = 150.553.567 Kg

* Ekoizpen hau ekoizle ertain eta handien eskuetan dago, gehienak I.T.G. Ganadero-ren programaren barruan.

2.- 1998ko urtarrilaren hasieran kalitate-araudia bete ahal izan dezaten aurreikusten diren ustiategiak:

Bakteriologia:

Ustiategiak: $533 + 158 + 109 = 800 = \%92$

Zelulak:

$483 + 237 + 109 = 781$ ustiategi = $\%89,5$

Kalitate-araudia bete ezin duten ustiategiek (alegia, tamaina txikikoek), berehalako ondorio gisa, jaitsiera jasango dute salmenta-prezioan.

Ondoren, bilketa selektiboa (A esnea eta B esnea) egitea aurreikusten da.

Prozesua urte gutxiren buruan amaituko da, sektorearen berregituraketarekin. Kalitatez ekoizteko baldintzak betetzen ez dituzten ustiategiek ekoizteari utziko diote.

3.- Jarduketak.

LAN-SISTEMAK ETA HELBURUAK:

Ezarrirako legedia Nafarroako abeltzain guztiek bete ahal izan dezaten, "Instituto Técnico de Gestión Ganadero" delakoak bere bitarteko teknikoak eta langileak gehitu ditu; horrela, plantilak sendotu egin ditu eta teknikari berriak hartu ditu. Ekipoa, gaur egun, Albaitaritzako lau lizentziatuk eta jezteko ekipo eta errutinetako bi espezialistak osatzen dute.

Lanerako sistematika hauxe da:

a) Errape-mina:

- Informazioari dagokionez: zirkularrak eta I.T.G. Ganadero-ren behi-aldizkarian hedatzea.

• Zelaian:

- Edoskitze-garaian dauden abere guztiei CMT (California Mastitis Test) egitea.

- Abere kronikoak detektatzeko, ugatzak haztatzea.

- Laginak hartzea, identifikazio mikrobiologikoko eta antibiogrametarako.

- Erabileraren baldintza orokorrak eta ustiategiaren baldintza orokorrak ebaluatzea.

- Emaitzak abeltzainari.

b) Bakteriologia:

Jezte-ekipoak egiaztatzea:

- Titikoen pultsazioak, irekierak eta itxierak.

- Kengailu automatikoen funtzionamendu egokia.

- Edukiera eta itxiera egokia duten bilgailuak.

- Jezte-ekipoen kopurua, hodiaren sekzioaren araberakoa.

Jezte-errutina:

- Errapeetan behar bezala jartzea eta bertatik kentzea.

Garbiketa-errutina:

- Xaboiak behar bezala dosifikatzea.

- Uraren tenperatura egokia.

- Garbiketaren iraupena.

- Garbiketa hobetzeko ekintza mekanikoa.

- Esnearen kontserbazio-tenperatura kontrolatzea.

- Tankearen egoera.

- Tankearen garbiketa.

Inhibitzaileen kontrola:

- Abeltzainen jarraipena eta prestakuntza.

3.- Bestelako jarduketak.

Zelaiko lan horren osagarri gisa, beste hainbat jarduketa zehatz burutu dira; adibidez:

– Behi-esnea ekoizteko teknikei buruzko esku-liburu bat egin eta argitaratzea.

Eskuliburu hori I.T.G. Ganadero-k azken hiru urteotan salbuespen gisa hartu dituen neurrietako bat da.

Eskuliburua bi zatitan banatua dago: lehenengoak sakonki aztertzen ditu kalitatezko esnearen ekoizpenean parte hartzen duten kate-maila guztien arazoak eta konponbideak, eta bigarrenak eskematikoki aipatzen ditu abeltzainak gogoan eduki behar dituen gomendioak.

– Hormako gomendio-orria:

Jezte-geletan ipintzekoa den horma-orri plastikatuak eskematikoki gogorarazten dizkio abeltzainari gogoan eduki beharreko neurri garrantzitsuenak, higienikoak, osasunekoak, genetikoak, elikadurakoak eta erabilerakoak.

– Tratamenduak erregistratzeko liburua. Tratamenduen arbela:

Biek helburu berbera dute; alegia, botikekin trataturiko abereak kontrolatzea.

Tratamendu-harbelak trataturiko abereen, erabilitako produktuaren gabetze-aldiaren eta abarren berri ematen du jezte-gelan; hitz batez, abere-taldearen eguneroko kudeaketarako erabili behar den tresna da.

Erregistratzeko liburuak helburu bera du, baina bere xedea trataturiko abereen historiala mantentzea da.

– Bideoa:

Instalazioei, jezte-teknikei eta erabilera-gomendioei buruzko irakaspenei bideo bat prestatzen ari gara. Bertan agertu nahi dira kalitatezko behi-esnea lortzeko zuzenak nahiz okerrak diren erabilera-ohiturak.

ERAKUNDEAK:

Esparru honetan lanean diharduten erakundeak honako hauek dira:

I.T.G. Ganadero, erabakitako helburuak lortzeko neurri eta jarduketa guztien kudeatzaile gisa.

Lekunberriko Laborategi Laktologikoa, kalitatearen kontrolerako zentro gisa.

FINANTZAKETA:

Jarduketak burutu ahal izateko finantzaketa hauxe da:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuarena eta hainbat Europako Programarena, ekintza batzuetarako.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuarena, Europako Programarena eta sektorearen partehartzearena, beste ekintza batzuetarako.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko zerbitzu periferikoak Gobernuko Ordezkaritzan integratzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko zerbitzu periferikoak Gobernuko Ordezkaritzan integratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 9ko 83. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko (NAEM) zerbitzu periferikoak integratzeari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Jaun horrek eskatzen duen informazioa Gobernuaren Ordezkaritzaren eskumeneko arlo bati buruzkoa bada ere, Estatuaren Administrazio Orokorraren Antolamendu eta Funtzionamenduari

buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legean xedaturikoari jarraituz efikaziari eta gastu publikoaren ekonomiarri dagozkien printzipioen arabera izanen da, Estatuak autonomi erkidegoetan duen Administrazio periferikoaren antolamendua, eta kontuan hartuko du beharrezkoa dela administrazio-egituren bikoiztea ekiditea, bai Estatu Administrazio Orokorrean bertan bai bestelako Administrazio Publikoetan (31. artikulua). NAE-Mek Nafarroan zeukan egitura, 6/1997 Legeak ezarritakoaren ondorioz, Gobernuaren Ordezkaritza osatzera pasa da, nekazaritzako esparru funtzionalean, eta Gobernuaren Ordezkaritza ekimenez burutu beharko da egituraketa. NAE-Mek Nafarroan zeukan Probintziako Zuzendaritza aipaturiko 6/1997 Legeko azken xedapenetako bigarrenak desagertarazi egin du.

Esparru funtzionalei dagozkien eginkizunak Administrazio Publikoen Ministerioko Agindu batean ezarrita daude. Ministerio Agindu hori 1997ko azaroaren 7koa da, 268 zenbakia duen Estatu Aldizkari Ofizialean, 1997ko azaroaren 8koan, argitaratu zen, eta abuztuaren 1eko 1330/1997 Errege Dekretua garatzen du, zerbitzu periferikoak integratzeari eta Gobernuaren ordezkartzen egiturari buruzkoa, hain zuzen.

Gai horri dagokionez, joan den abenduaren 1ean eginiko sektore-mailako azken hitzaldian, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministro andreak, informazioa ematearren, honekin batera

doan dokumentua, Ministerio hori ukitzen duen administrazio periferiko berriari buruzkoa, ekarri zuen.

1997ko irailaren 1etik aurrera Foru Komunitateak Nekazaritza Ganbaren, iruzurren, nekazaritzako elikagaien kalitatearen, Fega-ren eta merkatuak arautzeko eta horietan esku hartzeko jarduketan kudeaketaren arloko eginkizunak eta zerbitzuak transferentzia bitartez bereganatu zituen, eta, horren ondorioz, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren egitura organiko berria onetsi zen, irailaren 1eko 228/1997 Foru Dekretuaren bidez (112. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 1997ko irailaren 17koa). Egitura berri horrekin Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Sektoreari eskainitako zerbitzu-an efikazia handiagoa erdiestea bilatzen da, eta, ahal den neurrian, transferitutako funtzionarioak Foru Komunitatera transferituak izan aurretik ziharduten jardura berberetan mantentzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 5ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

(Oharra: Aipatu agiria Foru Parlamentariaren esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan.)

Sociedad Estatal de Aguas de la Cuenca del Ebro, SA izeneko sortzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Sociedad Estatal de Aguas de la Cuenca del Ebro, SA izeneko sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 28ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Sociedad Estatal de Aguas de la Cuenca del Ebro, SA izeneko sortzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Izan al du Nafarroako Gobernuak sozietate anonimo hori sortzearen berri? Kontsulta egin al zaio eta esku hartu al du sozietate horren sorreran?

Nafarroako Gobernuak behar zen garaian jaso zuen informazioa, Ebroko Ur Konfederazioak Aguas de la Cuenca del Ebro SA sozietate publikoa sortu baino lehen.

Nafarroako Gobernuko ordezkariak Ebroko Ur Konfederazioak 1997ko uztailaren 2an egin zuen Gobernu Batzarrera joan ziren; hartan, aho batez onetsi zen enpresaren sorrera, eta agerian geratu zen enpresa publiko hori sortzeak ekarri zuen poza.

Halaber, Nafarroako Gobernuko ordezkariak Ebroko Ur Konfederazioaren 1997ko azaroaren 20ko Gobernu Batzarrera joan ziren; hartan jakitera eman zen Ministroen Kontseiluak enpresa publiko horren sorrera onetsi berria zuela.

2. Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak jarduketarik egitea sozietate horrek eskainiko dituen zerbitzuak erabiliz? Zein jarduketa egin ahalko ditu enpresa horrek?

Enpresa publiko hori Ebroko Ur Konfederazioaren menean egonen da; horixe da sozietatearen garapena eta jardun-eremua diseinatu beharko duena.

3. Nafarroako Gobernuak prest al dago sozietate horren eskumeneko lan edo azpiegituretako batean finantzaketa pribatua sustatzeko? Eta lan horiek burutzeko eskura diren baliabideen enpresa-kudeaketa? Baiezkoan: zein izan daitezke ukitutako jarduketak?

Nafarroako Gobernuak, inbertsioen arloan dituen jarduteko planetan, ezin du alde batera utzi

egungo legediak ematen dituen ezein formula administratibo edo ekonomiko.

Gaur arte, oraingo Nafarroako Gobernuak ez du aurreikusi sozietate horren eskumeneko obrak sozietate harekin batera finantzatzea.

Hala ere, 3. ataleko erantzunean agertzen den bezala, sozietate horrek Nafarroan jardun dezake bere eskumenen eremuan.

4. Uste al du Nafarroako Gobernuak enpresa-kudeaketa eta finantzaketa pribatuek gure komunitatean egiten ari diren edo aurreikusita dauden jarduketak batzuen burutzapena azkartu dezaketela?

Oro har, ustiatu beharreko azpiegitura publiko-etarako finantziario pribatua kontraprestazio ekonomikoaren bidez lortzen saiatzearen xedea da, hain zuzen ere, obra horien eraikuntza azkarragoztea, izan ere kapital pribatuak egiten dituen ekarpen ekonomikoak ez dituelako administrazio publikoak egin behar; horrenbestez, Nafarroako Gobernuak formula hori erabiliko balu, zalantzarik gabe obra burutzeko epeak laburtzeko xedez egiten luke.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Imarkoingo Garraioaren Hiriko hustubidearen egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Imarkoingo Garraioaren Hiriko hustubidearen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 28ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Imarkoingo Garraioaren Hiriko hustubidearen egoerari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Ebaluatu al ditu Nafarroako Gobernuak joan den abuztuaren 6ko ekaintzak Imarkoainen sortu zituen kalteak? Zenbatean kalkulatu daitezke hustubidearen sistemaren funtzionamendu txarraren

ondorioz sortu ziren kalteak? Nork hartu du bere gain kalte horien zenbatekoa?

Egindako galderei erantzun baino lehen, beharrezkoa da datu batzuk ematea eta zenbait zehaztapen egitea idatziz egindako baieztapenei buruz.

Yoldi Etxearen (Imarkoain) hiri inguruan, 1997ko abuztuaren 6ko uholdeak izan ziren tokia, bi erreka daude:

1. Kalamuz erreka, 1,32 km²ko arroa duena

Ibai arro horretan dago Garraioaren Hiria, 0,6 km²ko esparrua hartzen duena. Urbanizazio horretako euri-uren drenajea berezko erreka batera isurtzen da.

Garraioaren Hiriko obrek ez dute erreka horretatik isurtzen den arroaren tamaina aldatu, inondik ere. Joan den abuztuko uholdea eragin zuen eurijasa gertatu zenean, hondalanean ari ziren Garraioaren Hiriaren obretan, eta, beraz, ez zuten aldaketa nabarmenik eragin gehienbat laboreak lantzeko erabiltzen zen erreka-arroaren isurketa-koefizientean. Hondalanek, bestalde, lurraren batez besteko malda aldatu egin zuten, ia-ia ordeka bihurtzeraino, eta hori mesederako da, kontzentrazio-denbora, eta beraz, edozein ekaitzek eragindako gehieneko ur-emia gutxitu egiten duelako.

Laburbilduz, Hiriaren Garraioaren obrek ez dute inolako zerikusirik gertatu den uholdean, erreka-arroaren isurte-azalera aldatu ez dutelako eta ekaitz batek eragindako uholdearen gehieneko ur-emariarekin zerikusia duten parametroetan aldaketa nabarmenik eragin ez dutelako.

2.- Arkotxain erreka, 2,93 m²ko arroarekin.

Erreka honek ez du zerikusirik Garraioaren Hiriarekin. Errekak, hala ere, gainezka egin eta Imarkoaingo hiri aldea urpean utzi zuen, aipatu ekaitzaren ondorioz.

Nafarroaren erdialdeko toki askotan ere gertatu ziren uholdeak egun hartan. Erdialdeko 14 herrik eskatu diote Nafarroako Gobernuari hondamendi-aldetzat jotzea, ekaitz berak eragindako kalteen ondorioz.

Aipatzen ari garen ekaitzak metro koadroko 60 litro bota zituen 24 ordutan eta 5 urteko itzulaldia du, gutxi gorabehera.

Uraldietan, honako honetan ere, gertatzen diren kalte gehien arazoak hiru arrazoi ditu:

a) Udal plangintzan ez da azterketa hidrológico eta hidraulikorik egiten, eta uholdeak harrapa ditzakeen aldeak urbanizagarritzat jotzen dira.

b) Lehorteko urteetan, laborantzari ekiten diote ur jabari publikoaren barruan.

c) Arro publikoak ez dira garbi eta landaririk gabe edukitzen.

Egindako galderari zehatz erantzuteko, hauxe esan behar: Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ez dituela ebaluatu joan den abuztuaren 6ko ekaitzak Imarkoainen sortu zituen kalteak. Lehen esan bezala, eragindako kalteek ez dute Garraioaren Hiriarekin zerikusirik, eta Departamentu honek ez ditu bere gain hartu.

2. Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak Garraioaren Hiriak euri-urak hustutzeko sistemaren egoera hobetzea? Baiezkoan: zein lan gauzatu behar ditu? Noizko bukatuko dira?

Herrilan Zerbitzuaren bidez ari da Departamentua azterketa hidrológico eta hidraulikoa egiten, bi erreka horiek ekarriko dituzten gehieneko ur-emariak ebaluatzeko, itzulaldi ezberdinetarako. Azterketa hidraulikoa ere burutzen ari dira aipatu erreken hustutze-ahalmena ezagutzeko.

Aipatu diren bi azterketen osagarri, oroit-idazki baloratua ere badago, burutu beharreko jarduketekin, Garraioaren Hiritik datorren errekak, Imarkoaindik iragaten denean, arro bat izan dezan, erre-kurrentzia luzeko itzulaldietako uholdeen gehieneko ur-emia eramateko modukoa, urak gainezka egin gabe. Urtea bukatu baino lehen amaituko dute oroit-idazki baloratu hori.

Azterketa horien lehen ondorio gisa, Zainketa Zerbitzuak aldatu egin du Kalamuz erreken eta errepidearen arteko gurutzegunean zegoen drenaje-obra. Hamar urteko itzulaldiari dagokion ur-emarirako neurriak zituen obra horrek, errepideen proiektuetan ohikoa den bezala. 1,50 zm.ko bi hodi sartu dira aurrekoen ordeztu, 500 urteko itzulaldia duten uholdeak ere har ditzazketenak. Ez da bestelako jarduketarik aurreikusi, printzipioz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

“Endekaturiko eremuak leheneratzea eta ingurugiro eragina zuzentzea” izeneko kontusailaren kontabilitate-egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Endekaturiko eremuak leheneratzea eta ingurugiro eragina zuzentzea” izeneko kontusailaren kontabilitate-egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 19ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Endekaturiko eremuak leheneratzea eta ingurugiro eragina zuzentzea izeneko kontusailaren kontabilitate-egoerari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein da, erantzunaren egunean, aipatu kontusailaren egoera kontablea (burututakoa).

Erantzunaren egunean, hitzarturiko aurrekontua 13.040.904,- pezetakoa da, hau da, ehuneko 54,34koa.

2.- Zein jarduketa burutzen ari da Ingurugiro Departamentua Nafarroan endekaturiko industri lurzoruen definizio ez nahikoa zuzentzeko.

Urtean zehar informazioa biltzen aritu da jarduketa publikoaren xede izan daitezkeen endekaturiko eremuei buruz. Horiek datu-base batean sartzen dira, proiektuak definitzeko, baimenak lortzeko eta, kasu guztietan, egoki diren ekintzen lehentasun-ordena ezartzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 9an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Esako urtegia handitzea onesteko prozedurari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Esako urtegia handitzea onesteko prozedurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko urriaren 6ko 64. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du herrilan hidraulikoak burutzearen inguruan dagoen zalantzari buruz. Zalantza horren arrazoietakoa bat Ingurugiro Ministro andrearen adierazpenak dira, aurreikusitako herrilan batzuk ez direla egingo esan baitu. Hona Inguru-

giro, Lurraldearen, Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

Galdera Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariari zuzendua badago ere, egokitzen jo da Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak erantzutea, galderaren edukiak Departamentu honen eskumenekoak diren hainbat arlo ukitzen baititu.

Bestalde, galdera horren edukia behinola Foru Parlamentari berari erantzun zitzaion galderaren antzekoa da. Galdera hori bidaltzen dugu, horren berri emateko eta erantzun gisa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 15ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

(Oharra: Kontseilariak aipatzen duen erantzuna 1997ko abenduaren 29ko 88. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.)

Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialean aurkezturiko eskabideak beste zentro batzuetara desbideratuko ote diren itauntzen duen galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialean aurkezturiko eskabideak beste zentro batzuetara desbideratuko ote diren itauntzen duen galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 28ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizia-

lean aurkezturiko eskabideak beste zentro batzuetara desbideratzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Ez.

2.- Epe laburreko planteamendua hauxe da: gutxienez ere, Hizkuntza Eskola Ofiziala bere gaurregungo egoeran mantentzea, Foru Komunitateko hizkuntza-irakaskuntzari buruz egiten den ebaluazioaren ondorioak eduki bitartean. Asmoa eskola hori bitarteko eta ahalmen gehiagoz hornitzea da.

3.- 1998an zehar, datorren urtarriletik aurrera, hainbat batzorde lanean hasiko dira, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan hizkuntza-irakaskuntzak duen egoera aztertzeke ardura daukatenak. Batzordeetan, Hezkuntza eta Kultura Departa-

mentuko funtzionarioek, hizkuntza-eskoletako zuzendariak eta hezkuntza-maila ezberdinetako irakasleek esku hartuko dute. Lanek lotura izango dute Kalitate eta Ebaluaziorako Institutu Nazionalaren planekin, eta ondoren azterketa-jardunaldi batzuk egongo dira, 1998/99 ikasturtean.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 19an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

1998ko maiatzean egindako bilerak

MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

5, 6, 12, 19 eta 26an:

OSOKO BILKURA

6an:

– Iruñeko Udaleko zinegotzia zen Tomás Caballero Pastor jaunaren hilketa gaitzesteko erakunde adierazpena.

20 eta 21ean:

– Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak errepideko hiri barruko garraio publikoa arautzen duen Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak Iruñerriko lineako bidaiari garraioari buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

–a) Onartzea, hala bada, Jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua zuzenean eta irakurketa bakarrean izapidatzea.

b) Jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2k 6/1990 Foru Legearen 136. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua, aintzat hartzea, hala bada.

– Arboniés Bermejo andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernuaren jokaera gaitzesten da, zenbait sendagai Gizarte Segurantzatik kanpo uzteari buruzko erabakiak ez betetzeagatik.

– Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Foru Komuni-

tateko Gobernuak premiatzen da LORAFNAko 29. artikulua aldatzeko erabakia bete dezan.

– Cortairte Tirapu andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Giza Zerbitzuen gaineko hitzarmenak arau ditzan.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zenbait zerga-aldaketa egin dezan.

– Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskatzen du ltoitz eta Nafarroako Ubideko obrei legezko estaldura emateko bitartekoak martxan jar daitezzen.

– Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da Gutxienean hizkuntzei buruzko Europako Gutuna berrets dezan eta Nafarroako Gobernuak premiatzen da azter dezan Euskarari buruzko Legearen egokitzapena Gutun horrekiko.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Administrazio Publikoetako langileen bateraezintasun araubidea aldatzeko Foru Lege proiektu bat bidal dezan.

– Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ahalik eta lasterren arau dezan LOGSEK ezarritako batxiler-maila eta lanbide modulu berrien finantzaketa.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

5ean:

– Nafarroako Basoei buruzko Plana (1998-2007) eztabaidatu eta bozkatzea.

13an:

- Bardeetara egindako bisita.

19an:

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Bertizko kudeaketari buruzko jardunaldi teknikoetako ondorioen berri eman dezan.

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Sotos de Traslpuente naturgunean zentral hidroelektriko bat jartzeko proiektuaren berri eman dezan.

26an:

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Naturguneei buruzko Foru Legean ezarritako aginduak betetzearen berri eman dezan.

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Arga ibaian suertatu den arrainen hiltzearen zergatiaren berri eman dezan.

28an:

- Erronkaribarrera egindako bisita.

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEA

5ean:

– Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, trafikoari buruzko eskumenak hartzearen berri eman dezan.

29an:

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen da aldi baterako kontratuak finko bihurtzeko Plan bat igor dezan.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen da Administrazioan aparteko orduak ez egiteko beharrezko ebazpenak eman ditzan.

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDI BATZORDEA

6an:

– Artaxonako lurzati antolamendua ikusteko bisita.

12an:

– Lan bilera. Bertan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak gure Komunitateko abere osasunaren egoeraren berri emango du.

INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA

12an:

– Lan bilera. Bertan, Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak krisian dauden zenbait enpresen egoeraren berri emango du.

13an:

– Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren agerraldia, Gas Navarraren berri eman dezan.

– Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskatuta, Ingranaren egoeraren berri emateko.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen da ACERALIA Taldeko lanpostuak mantentzeko behar diren urratsak eman ditzan.

FORU ARAUBIDE BATZORDEA

14an:

– Nafarroako Lehendakariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskatuta, zenbait gaii buruz Administrazio Zentralarekin egindako negoziazioen egoeraren berri eman dezan.

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

14an:

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, hezkuntza euskaraz egitearen aldeko kanpainen berri eman dezan.

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Tuterako Musika Ikastetxeko arazoaren berri eman dezan.

15ean:

– Lan bilera. Bertan, Ederra Irurtzun jaunak eta Txibite Martínez jaunak Larraintzarreko ikastetxean emandako Euskara Zerbitzuko "Zentroko Hizkuntz Plana" moduluaren berri emango dute.

19an:

– Lan bilera Nafarroako Unibertsitate Publikoa-
rekin, intereseko zenbait gai aztertzeko.

27an:

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren age-
rraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik,
Sakanako eskualderako hezkuntza planteamen-
duaren berri eman dezan.

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren age-
rraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik,
Rotxapea auzoko hezkuntza egoeraren berri
eman dezan.

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA

14an:

– Kontuen Ganbarako Lehendakariaren age-
rraldia, Ganbara horrek egindako Sakanako Auto-
biako Desjabetzapenei buruzko fiskalizazio txos-
tenaren gaineko azalpenak emateko.

22an:

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseila-
riaren agerraldia, Ziordiko Udalarekin sinatzekotan
dagoen akordioaren edukiaren berri eman dezan.

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA

15ean:

– Emakumeen eta gizonen arteko aukera-ber-
dintasunari buruzko Nafarroako Jarduketa Plana
(1998-2000) eztabaidatu eta bozkatzea.

27an:

– Gizarte Ongizate Kontseilariaren agerraldia,
Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, tratu txar-
rak jasan dituzten emakumeak hartzeko Etxearen
berri eman dezan.

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA

19, 26, 27, 28 eta 29an:

– Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren agerral-
dia, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari
buruzko Foru Legeko balizko aldaketan berri
eman dezan.

– Nafarroako Administrazio Publikoen Kontra-
tuei buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkez-
turiko emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

OSASUN BATZORDEA

22an:

– Vélez Medrano eta Landa Marco jaunek aur-
kezturiko mozioak batera eztabaidatu eta bozka-
tzea. Mozio horien bidez, Nafarroako Gobernua
premiatzen da sendagaiei buruz hartutako eraba-
kiak bete ditzan.

– Arboniés Bermejo andreak aurkezturiko
mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren
bidez, Nafarroako Gobernua premiartzen da Alz-
heimer-ek ukitutako pertsonentzako Laguntza
Plan Orokorra bidal dezan.

GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE BEREZIA

27an:

– Kolonbiako Epaileen Elkarte Nazionaleko
Lehendakariorde den Antonio Suárez jaunaren
agerraldia, Kolonbian gertatzen ari den giza-esku-
bideen urratzearen berri eman dezan.

– IXIM plataforman bildu diren hainbat gober-
nuz kanpoko erakunderen agerraldia, Mexikoko
Chiapasko egoeraren berri eman dezaten. Horri
buruzko erabakia hartzea.

1998ko maiatzean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

4an:

– Berako Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari buruzko erakunde-adierazpenarekin bat egiteko.

– Zugarramurdiko Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, Hondakin Berezien Plan Kudeatzailea gaitzesteko, Arazuriko instalazioa dela-eta.

– Alloko Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, Hondakin Berezien Plan Kudeatzailea gaitzesteko, Arazuriko instalazioa dela-eta.

– Arga ibaian, Iruñeko parean dagoen tartean, agertu diren arrain hilei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– Nafarroako ibaiak arazteko eta saneatzeko plan zuzentzaileari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– Hiri hondakin solidoen plan zuzentzaileko tratamendu eta bilketa alorrei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– Nafarroako Demokratien Elkargunea, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia. Hauxe aurkeztu dute: Eduardo Umaña Mendoza jaunaren eraiketa gaitzesteko eta gertatutako argitzeko ikerketa has dadila eskatzeko adierazpen politikoa.

– Bardeetako Komunitateko idazkia. Harekin batera, Bardeetako natur baliabideak antolatzeke planaren kopiak.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: Ingurugiro Kontseilariaren agerraldia, Argan arrain hilak agertzeko arrazoien eta hartutako neurrien berri eman dezan .

– Shanti Kiroga Astiz Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Gobernuko ordezkari den Ansuátegui jaunaren agerraldia, Iruñean gertaturikoen berri eman dezan.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe aurkeztu du horren bitartez: Eduardo Umaña Mendoza jaunaren eraiketa gaitzesteko eta gertatutako argitzeko ikerketa has dadila eskatzeko adierazpen politikoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egindako galdera baten erantzuna, Doktoretza ikastaroak egiteko eta ikerketarako gaitasun ziurtagiria lortzeko dirulaguntzen programari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, "Gas Navarra"rekin zerikusia duten hainbat gairi buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Nekazaritza Departamentuak 1997an esleitu dituen admistrazio-kontratu guztiei buruz.

5ean:

– Oteitzako Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, lanaldia murrizteari buruzkoa.

– Muruzabalgo Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, Hondakin Berezien Plan Kudeatzailea gaitzesteko, Arazuriko instalazioa dela-eta.

– Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren idazkia, hurrengoa jaso dutela jakinarazteko, "Ebazpena, Nafarroako Parlamentua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren progresibitatea murriztearen aurka dagoela adierazteko".

– Mañeruko Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, Hondakin Berezien Plan Kudeatzailea gaitzesteko, Arazuriko instalazioa dela-eta.

– Corts Valencianes-en idazkia, hurrengoa jaso dutela jakinarazteko: "Ebazpena, Nafarroako Parlamentua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren progresibitatea murriztearen aurka dagoela adierazteko".

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: Nekazaritza Kontseilaria ager dadila, esne-industrien eta kooperatiben protokoloaren berri eman dezan.

– Arga ibaiaren kutsadura dela-eta, Ingurugiro Departamentuak garatuko dituen ekimenei buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoiz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentari Taldearen idazkia. Errepideko hiri barruko garraio publikoa arautzen duen Foru Lege proiektu

tuari aurkeztu emendakinei osoko bilkurarako eusten dietela jakinarazteko.

– Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunaren idazkia, informazioa eskatu du, Nafarroako Foru Komunitateko enplegatuen eskubide pasiboen sistema berria ezartzeko dauden aukerei buruz.

– Mozioa, lurzorua araubideari eta balorzioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 legearen konstituzioaurkakotasunari buruzkoa, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak idazkia. Hauxe eskatu du: Kultura Batzordeak Aralarko santutegia bisita dezala.

– Euskarazko Haur eta Lehen Hezkuntzarako lanpostuak esleitzeko egindako probei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak idazkia.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen idazkia. Iruñerriko bidaiari-garraio publikoari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu dizkieten emendakinei eusteko, Osoko Bilkuran.

6an:

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen emendakina, hurrengoari: Mozioa. Horren bidez, Foru Komunitateko Gobernuaren premiatzen da Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoren 29. artikulua aldatzeko erabakia bete dezan, «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– Aragoiko Gorteen idazkia, hurrengo jaso dutela jakinarazteko: “Ebazpena, Nafarroako Parlamentua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren progresibitate murriztearen aurka dagoela adierazteko”.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, Aitzoaingo bidegurutzeari buruz hartutako neurriei buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, Aitzoaingo bidegurutzearen egungo egoerari eta Nafarroako Gobernuak aurreikusitako irtenbideei buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari

jaunak egindako galdera baten erantzuna, fidantzen kobrantzak arautzeari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, Fustiñanako Udalaren Erabaki bat deusezteko Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusiak emandako epaiak sortu duen egoerari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Patxi Zabaleta Zabaleta eta Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunek eskaturiko informazioa, Nafarroako zerga-estatistikei eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren udal banaketari buruzkoa eta Nafarroako udal bakoitzak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela-eta egiten duen ekarpenaren zerrendari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Iruñeko Alde Zaharrean hutsik dauden etxebizitzak zenbatekoa eta helbideei buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Herrilan Departamentuak esleitu dituen administrazio-kontratu guztiei buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariari Barañaingo gelategirako gimnasioa eta portxeak zabaldu eta eraikitze kontratua izenpetzeko baimena eman dion Erabakia.

– Madrilgo Biltzarreko Idazkari Nagusiaren idazkia. Gomita egin dio Legelari Nagusiari, Madrilgo Biltzarreko Legelarien kidegoan sartu nahi dutenezako hautaprobetako mahaikide izan dadin.

7an:

– Basaburuko Udalaren idazkia. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin bat egiteko Erakunde Adierazpena euskaraz bidaltzea eskatu dute.

– Basaburuko Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, Iruñerriko bidaiari-garraio publikoari buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoa.

– Imotzko Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, Iruñerriko bidaiari-garraio publikoari buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoa.

– Imotzko Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, Hondakin Berezien Plan Kudeatzailea gaitzesteko, Arazuriko instalazioa dela-eta.

– Basaburuko Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, Hondakin Berezien Plan Kudeatzailea gaitzesteko, Arazuriko instalazioa dela-eta.

– Belaskoingo Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, Hondakin Berezien Plan Kudeatzailea gaitzesteko, Arazuriko instalazioa dela-eta.

– Belaskoingo Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, Iruñerriko bidaiari-garraio publikoari buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoa.

– Hiru zenbakiko Instrukzio Epaitegiaren idazkia. Hauxe jakinarazi dute: 282/1996-A falta-epaketan erabaki dutena, alegia, Xotero Echandi Juanicotena Foru Parlamentari jaunari dagokion diru-kopurua atxikitzea, ezarri dioten isuna ordaintzeko.

8an:

– Mendigorriako Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, lanaldia gehienez ere 35 orduetara murrizteko eskariaren alde daudela adierazteko.

– Mendigorriako Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, Hondakin Berezien Plan Kudeatzailea gaitzesteko, Arazuriko instalazioa dela-eta.

– ANFASen idazkia. Hauxe eskatu du: adimen-atzerapena duten pertsonen arreta egiteko zentro espezializatuen arretaz eta kudeaketa-ereduaz hitz egiteko.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldearen idazkia. Erabaki-proposamena aurkeztu dute, lurzorua araubideari eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 legearen konstituzioaurkakotasunari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Alesbesko Escuderako putzua dela-eta Ingurugiro Departamentuak egin txostenari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Bertizko jaurerriko pagadia dela-eta Ingurugiro Departamentuak egin txostenari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Nafarroako Gobernuaren menpeko fundazioei buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, Nafarroako errepideetako puntu beltz edo arriskuguneak ugaltu izanari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, hondakinei buruzko zuzentarau berriari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, hainbat ondasun higiezin zaharberitzeko dirulaguntzak emateko erabili diren osakerak, baremo eta arauak buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, hainbat ondasun higiezin zaharberitu, bereoneratu edo konpontzeko dirulaguntzak eman zaizkien entitateen zerrendari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, INEMek Nafarroari eskualdatu behar dizkion pertsonen izen eta gutziak zerrendari buruz.

– Ororbiako Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, Iruñerriko bidaiari-garraio publikoari buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoa.

11n:

– Ibirikuko Kontzejuaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, Hondakin Berezien Plan Kudeatzailea gaitzesteko, Arazuriko instalazioa dela-eta.

– Tuterako Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, lanaldia gehienez ere 35 orduetara murrizteko eskariaren alde daudela adierazteko.

– Estatuko administrazioek eta Nafarroako Gobernuak lur kutsatuak bereoneratzeko plan nazionalaren jarduketak direla-eta izenpetu duten lankidetzak hitzarmenari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin.

– Estatuko administrazioek eta Nafarroako Gobernuak hondakin arriskutsuen plan nazionalaren jarduketak direla-eta izenpetu duten lankide-

tza hitzarmenari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– Estatuko administrazioek eta Nafarroako Gobernuak urak saneatu eta arazteko plan nazionalako jarduketak direla-eta izenpetu duten lankidetza hitzarmenari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– Hartz arrea Nafarroako Pirinioetako aldean agertzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: Industria Kontseilaria ager dadila, INGRANASaren egoeraren berri eman dezan.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: Osasun Kontseilaria ager dadila, gaisotasun mentala duten pertsonak errehabilitatu eta gizarteratzeko programa, jarduketa eta arauen berri eman dezan.

12an:

